

Aretxabaletako  
**Nerabe eta gazteen  
artean ematen den  
indarkeria matxistaren  
aurkako  
PROTOKOLOA**



Aretxabaletako  
Udala

HIRUKI  
LARROXA



<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
<b>2. Protokoloaren izaera eta helburuak</b>	<b>6</b>
<b>3. Nerabezaroa, hezkuntza ez-formala eta Indarkeria matxista</b>	<b>8</b>
<b>4. Protokoloaren agente eragileak</b>	<b>15</b>
<b>5. Kasuen definizioa</b>	<b>19</b>
<b>6. Protokoloa: prebentzioa eta sentsibilizazioa, detekzioa eta arreta eta jarraipena</b>	<b>21</b>
<b>7. Eranskina</b>	<b>35</b>

# 1

## Sarrera

Emakumeen aurkako indarkeriak azken hamarkadetan ikusgaitasuna lortu du mugimendu feministaren eguneroko borroka medio. Honek, kontzeptualizazioan helduleku asko sortzeaz gain, indarkeria matxistaren benetako dimentsioaz ohartzera eramán du jendarte osoa. Problematika konplexua den arren, jendartean “berdintasuna” eta “aniztasuna” bezalako kontzeptuak saretu dira gehien, eta aipatu fenomeno konplexu eta bortitz horren aurrean, ia soilik, indarkeria matxistaren kasurik bortitzenak salatzen dira: emakumeen aurka gizonak egiten dituzten abusu fisiko, bortxaketa eta erailketak. Noski, hori, indarkeriaren harimutur bat besterik ez da, izebergaren punta.

Gazteen artean, indarkeria matxista bikoteetan eta helduen esparruan ematen den indarkeria fisiko moduan hautematen da, honek sortzen duen arazo nagusietako batekin: indarkeria matxista gazteek ez dute haien eguneroko errealitatean hautematen. Honela, beraz, ez dira ohartzen gaztaroari dagozkion erritu, praktika, zein bizipenak erabat gurutzatzen dituela jendarte patriarkalak, bai eta patriarkatua iraunarazteko dauden jendarte mekanismo desberdinak ere: maskulinitate eta feminitate eredu zurrun eta itxiak, maitasun erromantikoaren mitoak bultzatuta sortutako bikote harremanak, heterosexualitatearen mandatua... Horregatik da garrantzitsua nerabe eta gazteen artean jendartea goitik behera gurutzatzen duen arazo honen ikusgaitasunean indarra jartzea. Bide honetatik, nerabe eta gazteek indarkeria matxista detektatzeko begirada eta tresnak eskura jartzea ahalbidetzen da.

Hezkuntza ez-formalean lanean dauden profesional desberdinen lanak berebiziko garrantzia du nerabe eta gazteen arteko indarkeria matxistaren prebentzioan. Haiek dira, hain zuzen, nerabe eta gazteekin egunerokoa den eta konfiantzan eta gertutasunean oinarritzen den harremana sortu eta elikatzen duten pertsonak, eta haiek direlako, azken batean, nerabe eta gazteen behar eta egoerak behatzetik haien garapen osasuntsua eraikitzeke lanean dihardutenak.

Gazteria zerbitzu desberdinetan lan egiten duten profesionalak, batetik, zein udaleko teknikariak, bestetik, nerabe eta gazteen artean indarkeria matxistarekin amaitu ahal izateko plan argi bat izateaz gain, indarkeria matxista detektatu eta honi aurre egiteko tresnak izan behar dituzte.

Eta horretarako sortu da protokolo hau. “Aretxabaletako nerabe eta gazteen artean ematen den indarkeria matxistaren aurkako Protokoloa”-aren egitekoa, nerabe eta gazteen artean ematen diren indarkeria matxista kasuak borrokatzeke, prebenitzeko eta detektatzeko tresnak eskaintzeaz gain, behin indarkeria matxista kasua gertatzen denean eman beharreko pausoak zein diren zehaztera dator.

Protokolo honek gazteria zerbitzuetako profesional zein udaleko teknikariak aipatzen baditu ere, nerabe eta gazteekin lanean diharduten bestelako elkarte, federazio zein talderi zuzendua dago batez ere. Hau da, indarkeria matxistaren prebentzioan, detekzioan nerabe eta gazteekin lan egin dezaketenei dago zuzendua, eta haiek ere, protokolo hau aktibatu ahal izateke gazteria zerbitzuetako profesionalek egin behar duten bide bera hartu ahalko dute.

Gauzak horrela, esku artean duzun txosten honek jarraian deskribatzen diren atalak ditu:

- *Protokoloaren izaera eta helburua* atalean, protokolo honen egitekoaren markoa eta bete nahi dituen helburu nagusiak barnebiltzen dira.
- *Nerabezaroa, hezkuntza ez-formala eta indarkeria matxista* atalean, esku artean ditugun hiru kontzeptu hauek lantzen dira eta hiru kontzeptuon artean dagoen harremana azalertzeko saiakera egiten da.

- *Protokoloaren agente eragileak* atalean, protokoloan parte-hartzen dutenak nortzuk diren eta herri mailako egituren zein leku duten azaltzen da. Halere, arestian aipatu moduan, ezin gera daiteke aipatzeke agente eragile hauez gain, nerabe eta gazteekin era batera edo bestera lan egiten duten bestelako talde sozialak ere protokolo honetan eskaintzen diren tresna eta jarraibideetara atxiki daitezkeela.

- *Kasuen definizioa* atalean, indarkeria matxista kasu desberdinak intentsitate mailaren arabera sailkatzen dira.

- *Protokoloa: prebentzioa eta sentsibilizazioa, detekzioa eta arreta eta jarraipena* atalean, indarkeria matxista nerabe eta gazteen artean prebenitu eta detektatzeko tresnak eskaintzen dira; era berean, eta protokolo honen muina denez, nerabe eta gazteen artean indarkeria matxista detektatzen denean eman beharreko pausoak zeintzuk diren zehazten da.

# 2

## Protokoloaren izaera eta helburua

Protokolo hau, indarkeria matxistaren prebentzioan, detekzioan eta esku-hartze zein interbentzioan oinarriturik dago.

Protokoloaren zeregin nagusia nerabeen artean indarkeria matxista kasua detektatzen denerako jarraibide argiak ematea bada ere, garrantzizkotzat jotzen da indarkeria matxista kasuak jasaten edo jasateko arriskuan dauden neska gazteen kasuak ekidin ahal izatea, horregatik, prebentzioari ere bere lekua emateko beharra argia da.

Era berean, nerabeen arteko indarkeria matxistaren kasu gehienak indarkeria psikologikoaren arloan eta bikote harremanean ematen denez, indarkeria detektatzeko zailtasunak egon ohi dira; hori dela eta, detekzioari berebiziko garrantzia eman behar zaio, indarkeria matxista jasaten ari den edo jasateko arriskua duen nerabe edo gaztearen kasua lehenbailehen artatu ahal izateko.

Azkenik, eta arestian aipatu moduan, behin indarkeria matxista kasua detektatu denean, indarkeria jasaten ari den pertsona era osasuntsuan, bere ahotsa entzunez eta inola ere derrigortu gabe, protokoloa aktibatzeke jarraibideak emango dira.

Gauzak horrela, honako helburuak barnebiltzen ditu nerabezaroan ematen diren indarkeria matxisten aurkako protokolo honek:

- *Emakumeen\* eskubide eta askatasunak indartzen laguntzea, beldurraren kulturarekin amaitzeko helburuz.*
- *Nerabeen arteko indarkeria matxistaren prebentzioan, neska gazteen artean ahalduntze prozesuak bideratu ahal izateko eta mutilen artean maskulinitateen lanketa landu ahal izateko bideak aurreikustea.*
- *Nerabeen arteko indarkeria matxista kasuak detektatzen laguntzeko irizpideak eskaintzea.*
- *Eraso matxista ematen denean, erraztasunez eta azkartasunez aktibatuko den prozedura bat eskaintzea.*
- *Eraso jasan duen pertsonaren erreparazioa helburu, babesa eman eta ahalduntze prozesurako tresnak eta bidelaguntza eskaintzea.*
- *Eraso eragin duen pertsonak erreparazio prozesuan parte aktibo izan eta eraldaketarako tresnak eskaintzea.*
- *Nerabeak erabiltzen dituen udal zerbitzu zein bestelako zerbitzu edo lekuetako profesionalek arreta eta jarraipen koordinatua egitea.*

# 3

## Nerabezaroa, hezkuntza ez-formala eta indarkeria matxista

Protokolo honen fokuan, hezkuntza ez-formalaren eremuan indarkeria matxista jasaten duten nerabe eta gazteak daude. Beharrezkotzat jotzen da, beraz, bakoitza bere horretan definitu eta zehaztea.

### Nerabezaroa

2019ko urtarrilean, Farapi kooperatibak dinamizaturiko “Nerabeekin aisialdiaren inguruko ikerketa eta partaidetza prozesua” diagnostikoa argitaratu zuten Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek. Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi Ikastolako nerabeek hartu zuten parte diagnostikoan. Diagnostiko honetan honela definitzen da nerabezaroa:

*Soziologikoki nerabezaroa bizitzako aro berri bat dela esan daiteke. [...] Nerabezaroa trantsizio fase bat den neurrian, haurtzaro eta heldutasunaren arteko bidai bat alegia, zaila da ere bere iraupena zehaztea. Gizarteak ezartzen dituen sailkapen jakinetatik at eta anbiguotasunean murgilduta gelditzen denez, berezkoa du izaera lausoa, kaotikoa eta desordenatua, momentu askotan gizarteko egitura jakina zalantzan jarri eta honi aurka egiten diona.*



Munduko Osasunaren Erakundeak (MOE) garatutako definizioaren arabera, nerabezaroa 10 eta 19 urte bitartean zabaltzen den denboraldia da eta gaztaroa 15 – 24 urte bitartean kokatzen dena. Dena den, nerabezaroaren barne azpifase desberdinak bereizi daitezke. Jarraian [...] gai hau landu duten bi autorek egin dituztuen definizio edo klasifikazioak azaltzen dira (Serapio, 2006):

- Horrocks (1984) autorearen arabera hiru azpi-fase egongo lirateke nerabezaroaren baitan: nerabezaro goiztiarra (11-13 urte), neraberazo erdia (14-16 urte) eta nerabezaro berantiarra (16-20 urte).
- Neisten (1991) eta Brañas (1997) autoreek aldiz hurrengo bereizketa egiten dute: nerabezaro goiztiarra (10-14 urte), nerabezaro erdia (15-17 urte) eta nerabezaro berantiarra (18-21 urte).

[...] Ematen diren hiru definizioek [...] bi kontu garrantzitsu jartzen dituzte auzian. Lehenengoa [...] nerabezaroari berezkoa zaion zehazgabetasunari dagokio, bai adinaren aldetik, zein pertsona bakoitzak nerabezaroaren fase ezberdinetan zehar igarotzeko duen erritmoari dagokionez ere. [...] Dena den, heldutasunerako bidean edo nolabaiteko trantsizio horretan, badaude [...] adin-tarte bakoitzari propioak zaizkion hainbat ezaugarri.

[...] Arnold Van Gennep antropologoak 1960an sortu zuen igarotze erritua baliagarria izan daiteke nerabezaroak barnebiltzen dituen azpi-fase ezberdinen arteko mugak zeintzuk diren nolabait ulertu eta kokatu ahal izateko. Bere esanetan, igarotze errituak lirateke “edozein leku, egoera edo estatu, posizio sozial eta adinaren arabera aldaketak laguntzen dituzten erritu guztiak”. Igarotze erritu hauek, 3 fase nagusi izango lituzkete: 1)haustura edo urruntze fasea, 2)tarteko fasea edo muga egoera, “liminaltasuna” deitua, eta 3)sarbide fasea.

[...] Ezin dugu ahaztu (nerabeak) “igarotze momentu” batean murgildurik daudela.

Bigarren gai garrantzitsu bat, nerabezaroa aldaketa biologikoez harago doan prozesu bat dela ulertzea da eta pertsonaren baitan geratzen diren aldaketa psikologiko eta sozial garrantzitsuak barnebiltzen ditu.

Jarraian, aurretik aipatu diren nerabezaroko faseak kontuan hartuz, Debagoienan kokaturiko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak urteetako informazioaz sortutako taulan, nerabezaroko fase bakoitzean ematen diren aldaketa nagusiak biltzen dira:

<b>Nerabezaro goiztiarra</b> <i>11 – 15 urte</i>	<b>Tarteko nerabezaroa</b> <i>13 – 17 urte</i>	<b>Nerabezaro berantiarra</b> <i>15 – 18 urte</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familia eta gurasoen paperak balio handia hartzen du, nahiz eta familiarekin gatazkak ohikoak diren.</li> <li>- Musikarekiko, janzkerarekiko, ilearekiko, itxura pertsonalarekiko interes oso handia.</li> <li>- Ideiekiko, baloreekiko eta gai sozialekiko interesa areagotzen da. Batzuetan ulermena mugatua du gai hauekiko.</li> <li>- Bere berdinentzat onartua izateko beharra.</li> <li>- Identitate pertsonalarengatik arduratuta.</li> <li>- Oraindik familiarekiko dependentzia du baina mugak frogatzen hasi da.</li> <li>- Familia eta lagunekin gatazkak independentziarako bidea izaten dira.</li> <li>- Egozentrikoa da.</li> <li>- Haserrealdiak eta umore aldaketak.</li> <li>- Asko arduratzen dira beraien kanpoko itxuraz eta gorputzean gertatzen diren aldaketez.</li> <li>- Bere berdinekiko eta hauen kulturarekiko interes handiagoa.</li> <li>- Lagunak aldatzea ohikoa izaten da.</li> <li>- Ohikoena bere sexu berekoekin erlazionatzea da, baina beste sexuarekiko ardura, antsietatea eta esperimintatzeko gogoia adierazten dute.</li> <li>- Arrakasta eta besteen errekonozimendua lortzeko behar handia, nahiz eta indiferentzia jokaerarekin tapatu nahi izan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsamendu abstraktua guztiz garatzen da.</li> <li>- Antsietateak eta distrakzio garrantzitsuek pentsamendu abstraktuan eragina dute.</li> <li>- Ideiekiko, balioekiko, idealekiko eta gizarte gaiekiko interesak dirau.</li> <li>- Familiarekiko independentzia hasten da. Gutxiago jartzen ditu frogan gurasoak.</li> <li>- Erosoago sentitu ohi dira beraien gorputzeko irudiarekin ea gorputzeko aldaketekin.</li> <li>- Beste sexukoekin harremana estuagoa da baina gehiago erlazionatzen dira sexu berekoekin.</li> <li>- Bere berdinekoekin erlazioaren dependentziak eta antsietateak jarraitzen du.</li> <li>- Drogak proba ditzake.</li> <li>- Arrakastagatik, bere esperientziagatik eta bere garaipenak errekonozitzeagatik arduratua.</li> <li>- Itxura fisikoarekiko, musikarekiko eta kultura arloko beste kontu batzuekiko interesak dirau.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsamendu abstraktua ondo finkatua dago gehienetan. Orainaldiko eta etorkizuneko egoeretan aplikatzen da eta gai zabalago batzutean ere bai (arazo sozialak, ikasketa akademikoak).</li> <li>- Emantzipaziorako pausoa hurbilekoa denez (etxetik ateratzea, ikasketak bukatzea, baliabide ekonomikoak lortzea...) antsietate egoerak eta jarrerak sor daitezke.</li> <li>- Independentziarekin gero eta arduratuago eta interesatuago. Normalean oraindik ez dago prest emozionalki eta logistikoki erabateko emantzipaziorako.</li> <li>- Harreman egonkorak izan ditzake bere berdinekin eta helduekin.</li> <li>- Gorputzaren itxura finkatua dago.</li> <li>- Norberarekiko, besteekiko eta arazoaren naturaltasunarekiko ikuspegi errealistagoa ella finkatuagoa du, eta hauen irtenbiderako trebezia gehiago ditu.</li> <li>- Arrakasta izatearen eta bere lorpenak errekonozitzearen beharrak jarraitzen du.</li> </ul>

## Hezkuntza ez-formala

Hezkuntza ez-formalaz ari garenean, hezkuntza formalek at dagoen ekintza iraunkorraz ari gara. Zentzu honetan, antolatua egon daitekeen hezkuntza da, zeinaren urteko

ekintza plan baten baitan, nerabe eta gazteek dituzten behar emozional, intelektual zein sozialak, hizkuntza, balioak... eta beste lantzen diren; era berean, antolatu gabeko denbora tarteak ere izan ohi ditu, zeinetan era informalean, arestian aipatu gazteen behar desberdinak asetzen diren.

Oro har, hezkuntza ez-formala aisialdiaren baitan kokatzen da. “Nerabeekin aisialdiaren inguruko ikerketa eta partaidetza prozesua” diagnostikoan, honakoa aipatzen da aisialdiaren inguruan:

*Aisialdia [...] lanik edo zereginik gabeko denbora tarteak litzateke, nahi den eran bete daitekeena. Aisialdiko denborari lotuta zenbait nozio aurki ditzakegu: hala nola, deskantsua, askatasuna, gozamina edo plazera eta lagunartekotasuna. Jarduera solteak baino gehiago, eta nerabezaro garaia lotuta, aisialdiko denbora eta ekintzak bizipen garrantzitsuekin lotzen dira, hau da, bizi beharreko esperientziekin [...].*

*Zenbait autoreren esanetan, aisialdia edo denbora libre dira nerabeek beren subjektibitatea garatzeko eta libreki espresatzeko duten denbora-tarte bakarra, eguneroko ikasketa eta ardura edo betebeharretatik at [...].*

*Bestetik, nerabeentzat aisialdiak baditu hiru elementu nagusi edo funtsezkoak: erabaki autonomoak, ekintza bera izatea helburua eta lagunartean ondo pasatzea.*

## Indarkeria matxista

Kontzeptu hau protokoloaren glosategian dagoen arren beharrezkoa da indarkeria matxistak hezkuntza ez-formalarekin eta nerabezaroarekin zein harreman duen zehaztea. Horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko ekainean argitaratu “Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria” dokumentuan indarkeria matxistaren inguruan egiten den kontzeptualizaziora joko dugu:

*Determinismo biologikoak sexua errealitate naturalizatu moduan ulertzen du, hau da, aldaezina eta, hortaz, ahistorikoa den funtsezko kategoria bat. Gorputzen ezaugarri biologiko jakin batzuetan oinarrituta gauzatzen den*

*botere-harremanen jardun esentzializatzaile hori, XIX. mendeaz geroztik, normala edo anormala dena izendatu, kategorizatu eta hierarkizatzen duten eztabaida zientifikoaren bitartez finkatu da. [...]*

*Hausnarketa eta jardun feministek funtsezko kategorio horien faltsutasuna erakutsi eta frogatu dute, besteak beste ondorio hauek baitituzte:*

- *gorputzen gaineko botere-harremanak daudela ukatzen dute*
- *emakumeak botere patriarkalaren jasotzaile "naturalizatu" bezala kokatzen dituzte*
- *gizarte-eztabaidatik eta -adostasunetik gorputzaren gaineko politikak isolatu nahi dituzte.*

*Hortaz, ulertuko dugu sexua arra/eme binomioan oinarrituta kategorizatzea gizarte-erakuntza baten osagarria dela, hain zuzen ere gorputzen kontzeptualizazio historiko eta kulturalean gizona/emakumea kultur fikzioak sortu dituenarena: intersex errealitatea begien bistako gauza da horri dagokionean, argi eta garbi. Gorputz horiek ez dira "patologikoak", medikuntza-zientziak irizten dion bezala; gorputz horiek ezin dira kategorizatu arra/eme edota gizon/emakumea binomioan, eta, hortaz, ezin dira sartu horiei dagozkien kategorio sozializatzaileetan, hau da, gorputz horiei ezin zaie aplikatu genero maskulino/femeninoaren sozializazioa.*

Beste hitz batzuk erabiliz, indarkeria matxista, jendarteak egiten duen gizon eta emakumeen banaketa eta banaketa honen kokapen bakoitzaren artean, gizon eta emakumeen artean, ematen den botere harremana litzake; baina batez ere, indarkeria matxista, botere harreman hori medio, jendarte patriarkalak emakumeekiko eragiten duen orotariko indarkeria litzake: indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, politikoa, ekonomikoa, judiziala...

## Nerabeen arteko indarkeria matxista hezkuntza – ez formalean

Nerabezaroa, ikusi dugun moduan, aldaketa eta egonkortze garai oso garrantzitsua da pertsonengan. Prozesu honetan zehar, autonomia pertsonala eraikitzeaz gain, jendarteko arauak, dinamikak eta barne funtzionamendua ulertu eta praktikan jartzen dira.

Zentzu honetan, jendarte patriarkal batetan bizi garen heinean, oso ohikoa da nerabezaroan genero araberako banaketa muturrera eramatea, diferentziaren ideian oinarriturik. Izan ere, feminitate eta maskulinitate ereduak, elkarren aurka eraikitako estereotipoetan oinarritzen dira, eta beraz, elkarrekin egon/eraiki ezin dutenaren ustea nerabe eta gazteen artean errotzen da. Are gehiago, aipatu feminitate eta maskulinitate eredu nagusia hauek, beste uste sendo batean oinarritzen dira: konplementaritasunean. Honek esan nahi duena da, jendarte honetan sortzen ditugun pertsonak talde bateko edo besteko garela, eta elkarrekin egotekotan, bakoitzak dituen ezaugarrien eta bestearen ezaugarrien baturatik osotasuna lortzen dela, eta honela egikaritzen da, heterosexualitatearen mandatua.

Jendarte egitura patriarkalak, praktika, ekintza, rol eta jokabide patriarkalak sortzen ditu, hau da, patriarkatua, ez da soilik ideien munduan dagoen zerbait. Patriarkatua egunero praktikatzen da, eta hau, gazte eta nerabeetan, are argiago ikusten da: mutil moduan jendarteratutako pertsonak, esaterako, espazio publikorako sarbidea baimendua dute, akzioaren bitartez garatzen dute haien identitatea, eta bortxaren edo indarkeriaren erabilera ahalbidetzen duten erritu eta jolas desberdinak garatzen dituzte; emakume moduan jendarteratzen diren pertsonak, aldiz, aipatu esparruak “debekatuak” dituzte, eta haien ekintzen artean, otzantasuna zein emozioekin eta harremanekin zerikusia dutenak daude.

Jendarteratze prozesuan dauden dispositibo desberdinetan (familia, eskola, sare sozial digitalak, aldizkaria, ekoizpen kulturalak...) identitate patriarkalak birsortu egiten dira

gau eta egun, eta beraz, ohikoena da zalantzarik gabe gure begien aurrean egunero agertzen den mundu horretako arauak normaltzat jotzea, ordena natural baten parte direla sinistea.

Ordena natural horretan, beraz, neska eta mutil gazteek haien papera barneratu eta bete egiten dute. Mutil gazteen kasuan, patriarkatuak gizoni egozten dien dominazio posizioa baliatuz, konsentimendua, gizonenak ez diren gorputzekiko sarbide baimendu gabea, gailentasuna, finean, indarkeria eragiteko posizioa dute. Eta testuinguru honetan da, kontsentsu eta komunikaziorik gabeko dominazio harremanen baitan (afektuzkoak, erotikoak zein lagunartekoak) zeinetan eragiten den indarkeria matxista.

Honen aurrean, hezkuntza ez-formalean egiten den lanak berebiziko garrantzia du. Izan ere, hezkuntza ez-formalean indarkeria matxistaren prebentzio plan eta ekimen desberdinak garatu daitezke, formal zein informalki, denak aisialdiari loturiko esparruan.

Eta hor da, hain zuzen, nerabe eta gazteen arteko harremanak behatu eta planifikatutako zein lekuan lekuan eta unean uneko esku-hartzeen bitartez indarkeria matxistaren prebentzio lanak inpaktu handiena izaten duen lekua. Horregatik da garrantzitsua, bertan lan egiten duten koordinatzaile eta hezitzaileek, zein guzti horren kudeaketa teknikoa egiten dutenek, ikuspegi feminista eta intersekzionaletik, nerabe eta gazteen arteko indarkeriazko harremanak, tratu onetan oinarritutako harreman osasuntsuetara eraldatzeko planak egin eta garatzea.

# 4

## Protokoloaren agente eragileak

Protokoloan era batera edo bestera parte hartuko duten agente eragileak 5 izango dira. Batetik, Aretxabaletako Gaztelekuko hezitzaileak eta kale hezitzaileak daude, eskuhartze eta harreman zuzenean daudenak gazteekin; bestetik, udaletxean dauden sail desberdinak leudeke, protokoloa martxan jartzerakoan parte aktibo izango direnak: Berdintasun Saila, Gazteria Saila, Prebentzio Saila eta Gizarte zerbitzuak.

Jarraian, banan banan haien funtzioak zehaztuko dira:

### Gaztelekuko hezitzaileak

Aisialdi eskaintzatik harago, pertsonen garapena ahalbidetzen duten trebetasunak eskuratzeko, esperientzia aberasgarriak bizitzeko eta interesgune ezberdinetara hurbiltzeko baliabideak eskaintzen duen zerbitzua da. Haien eguneroko lanean, sormenak, euskarak, harremanek eta hezkidetzak garrantzia berezia hartzen dute. Aretxabaletako Gaztelekuan kokatzen dira, eta ekimenak garatzen dituzten haien lokalean, bai eta lokaletik kanpo ere.

#### Funtzioak:

- Nerabeei aisialdi hezitzaile bat eskaintzea
- Euskara sustatzea

- Harremanak osasuntsuak lantzea
- Esperientzia aberasgarriak eskaintzea
- Pertsonen garapen integrala sustatzeko baliabide eta tresnak eskaintzea
- Nerabeak interesgune ezberdinetara hurbiltzeko baliabideak eskaintzea
- Nerabeen interes eta nahiak kontuan hartuz ekintzak proposatzea
- Hezkidetza lantzea:
  - Indarkeria sexista / matxistaren aurrean esku-hartze egoki eta eraginkor bat egitea
  - Jarrera matxisten aurrean bidelagun izatea eta ahal den neurrian konponbidea eskaintzea
- Bestelako arduradunik egon ezean (Berdintasun edo Gazteria Saileko arduraduna), protokoloa aktibatzea.

### **Kale hezitzaileak**

Herri mailan, era planifikatuan nerabeekin lan egiten duten pertsonal dira. Batez ere, zailtasun egoeran dauden gazteen parte-hartzea sustatzea eta arrisku egoeran dauden gazteen detekzio azkarra egitea dute helburu.

#### **Funtzioak:**

- Nerabeekin herri mailan harremana eraiki eta hauekin lan hezitzailea sustatzea
- Arrisku egoeran dauden gazteen identifikazioa sustatzea
- Zailtasun egoeran dauden gazteen garapen pertsonala, harremanena eta antolakuntzazkoa sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea
- Beste zerbitzu batzuekin batera nerabe horiekin hainbat arlo lantzeko elkarlanean aritzea
- Hezkidetza lantzea:
  - Indarkeria sexista / matxistaren aurrean esku-hartze egoki eta eraginkor bat egitea
  - Jarrera matxisten aurrean bidelagun izatea eta ahal den neurrian konponbidea eskaintzea



- Bestelako arduradunik egon ezean (Berdintasun, Prebentzio edo Gazteria Saileko arduraduna), protokoloa aktibatzea.

### **Berdintasun zerbitzua**

Herri mailan generoagatik, arrazagatik, sexualitateagatik, maila ekonomikoagatik, erlijio sinesmenengatik... egon daitezkeen desoreka egoerak gutxitu edo ez gertatzeko beharrezkoak diren plan eta ekinbideak eta hauen jarraipena egiteaz arduratzen den udal saila da.

#### **Funtzioak:**

- Herrian diskriminazio edo desberdinkeria egoerak identifikatu eta hauek iraultzeko baliabideak jarri:
  - Informazioa banatu
  - Tailer eta formazioak eskaini
  - Eragile izan daitezkeen erakundeetan (eskola, kirol taldeak, musika eskola...) esku-hartzeak egin
- Berdintasun Planaren sorrera, garapena, jarraipena eta berrikuspina egitea
- Udaleko beste sailekin harreman estu eta koordinatua izatea, hau da, sailak duen zeharlerro izaera kontua hartuz, informazio truke eta koordinazio jarraia izatea beste sailekin.
- Protokoloa aktibatzea

### **Gazteria Saila**

Nagusiki, aisialdi hezitzailea, parte-hartzearen sustapena, prebentzioa eta aukera berdintasuna helburu dituen zerbitzua da. Lan hau hainbat zerbitzu eta jardueren bitartez gorpuzten da: haurrei zuzendutako zerbitzuak (udaleku irekiak, ludoteka...) eta nerabeei zuzenduriko zerbitzuak (Gaztelekua, Bixi prozesua...).

#### **Funtzioak:**

- Haur, nerabe eta gazteei, euren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkor eta etengabea ematea

- Haur, nerabe eta gazteei haien garapen integralerako baliabide desberdinak eskaintzea
- Nerabe edo gazteen arteko indarkeria matxista kasuak detektatuz gero:
  - Gurasoen sentsibilizazioa zein guraso eta hezitzaileen arteko zubilana egitea
  - Indarkeria matxistaren prebentziora bideratuta, herritarrentzat formakuntzak proposatzea (hezitzaile zein gurasoentzat)
  - Hezkuntza formalarekin harremana izatea
- Protokoloa aktibatzea

### **Gizarte Zerbitzuak**

Udalaren arlo hau, herriko pertsonen ongizateaz arduratzen da.

#### **Funtzioak:**

- Udalerrri moduan pertsonen ongizatea susta dezaketen ekintzak identifikatu eta gauzatzeko baliabideak jartzea:
  - Herritarrei informazioa helaraztea
  - Ongizatea sustazen duten ekintzak bideratzea
  - Herritarrei arreta zerbitzua ematea
  - Pertsona zein kolektibo zaurgarriei laguntza eskaini eta bideratzea
- Herritarren beharren informazio bilketa egitea

# 5

## Kasuen definizioa

Orain arte ikusi dugun bezala, indarkeria matxistaz ari garenean, egiturazkoa den sistema baten egikaritzeaz ari gara. Hala ere, beharrezkoa da indarkeria hori zehaztea. Izan ere, egunerokoan ikusezin egiten diren indarkeria matxista kasuetatik hasiz, ikusgai den eta jendartean asaldura sortzen duen indarkeria matxista kasuetara, gradazio oso bat dago, zeinaren aurrean, jarrera eta erantzun desberdinak eman behar diren. Nerabezaroan ematen den indarkeria matxistaren aurkako protokolo honetan, 4 indarkeria tipologia proposatzen dira:

### 1. Tipologia

Lehen tipologia honetan, egitura patriarkalaren oinarriak iraunaraztea helburu duten jarrerak sartzen dira. Hauen bitartez, botere harremanak birsortzen dira eta pribilegio kokapenak indartu egiten dira. Norbanakoaren zein taldearen ekintzak izan daitezke ea pertsona bakarrari zuzenduak egon ahal dira, edo talde osoari.

- Kontuan ez hartzea
- Zerbait egitera behartua sentiaraztea
- Gutxiestea eta balioa kentzea
- Infantilizatzea
- Objektu bihurtzea (*kosifikatzea*)
- Espazio fisikoan indarrez sartzea
- Jarrera paternalistak izatea
- Haren ordezkoi azalpenak ematea
- Sistematikoki hitza kentzea/moztea
- Eztabaidak monopolizatzea
- Manipulatzea
- Jarrera, itxura, jatorri, sexu-joera edota identitateak epaitzea edo horien gaineko txantxak egitea
- Iruzkin matxistak egitea
- Hizkera matxista erabiltzea
- Jokabide matxistak babestea
- Sistematikoki zalantzan jartzea

## 2. Tipologia

Bigarren tipologia honetan, pertsona zehatz batzuk beldurtu edo kontrolatzeko jokabideak sartzen dira. Jarrera hauek publikoan zein pribatuan izan daitezke. Sotilki ematen hasten diren jokabideak diren arren, denboran intentsitatez areagotzen doazen jokabideak dira eta jasotzen dituen pertsonarengan baliogabetze sentipena eragiten du.

- Iraintzea
- Umiliatzea
- Kontrolatzea
- Beldurra eragitea
- Isolatzea
- Oihu egitea
- Intimitatea ez betetzea
- *Baboseatzea*
- Xantai emozionala egitea
- Ekonomia kontrolatzea
- Jokabide/eraso matxistak arinkeriez hartzea

## 3. Tipologia

Hirugarren tipologia honetako jokabideek, pertsona mendean hartzea dute helburu, euren buru eta gorputzen jabe izatea galaraziz.

- Mehatxu egitea
- Jazartzea
- Onartu gabeko ukitzeak egitea
- Izaera sexualeko ezezkoaren aurrean behin eta berriz tematzea
- Izaera sexualeko material grafikoa edo pertsona baten datu pertsonalak edo informazio intimoa bere baimenik gabe zabaltzea

## 4. Tipologia

Laugarren tipologian, indarkeria matxistaren adierazpen muturrekoenak sartzen dira. Bortizkeria handiko eraso matxistak dira eta pairatzen dituen pertsona suntsitzea dute helburu. Erasoa jasaten dituen pertsonaren deshumanizazioa dakarte, eta berarengan zein komunitatean ondorio larriak izaten dituzte.

- Sexualki erasotzea
- Erasoa fisiko edo psikologikoa
- Bortxatzea
- Erailtzea

# 6

## Protokoloa: prebentzioa eta sentsibilizazioa, detekzioa eta arreta eta jarraipena

### Prebentzioa eta sentsibilizazioa:

Indarkeria matxistaren fenomenoarekin amaitu ahal izateko estrategikoa eta, beraz, zeregin garrantzitsuenetakoa, indarkeria matxistari aurre egiteko prebentzioa eta sentsibilizazioa egitearena da. Estrategia hauen jasotzaile garrantzitsuenak, era berean, haur, nerabe eta gazteak dira, hain zuzen, identitatearen garapen eta egikaritze fasean daudelako, eta beraz, garai honetan sortzen direlako aurrerantzean izango dituzten harreman dinamiken oinarriak.

Indarkeria matxistaren prebentzioaz hitz egiten ari garenean, indarkeria matxistaren fenomenoaren intzidentzia gutxitu edo ekiditeko ekimen multzoez ari gara. Prebentzioa, era berean, beti landu beharreko atala da, hau da, indarkeria matxistaren kasuak eman ez direnean, hauek ekidin ahal izateko, bai eta indarkeria matxista kasuak eman ondoren ere, hauek ez kronifikatzeko.

Prebentzioaren helburu nagusietako bat, komunitatea sentsibilizatzea da, edozein motatako indarkeriak justifikaziorik izan ez dezan. Zentzu honetan, sentsibilizazioa, indarkeria matxistarekin amaitu ahal izateko iruditeria kolektiboan aldaketa bultzatzeko egiten diren ekimen multzo pedagogiko eta komunikatibo moduan definituko genuke.

Edozein prebentzio edota sentsibilizazio ekimen garatzerako orduan, beharrezkoa da gazteekin lan egiten duten profesional guztiek, 1) *prebentzio eta sentsibilizazio ekimenak martxan jartzerakoan jarraibide* batzuk kontuan izatea, 2) *gomendio metodologiko* batzuk jarraitzea eta 3) *gaiaren ikuspuntu zehatz bat* izatea.

1.Prebentzio ekimenen garapenerako kontuan izan beharreko jarraibideak	
<p><b>a. Ekimen zehatz bakoitzaren hartzaileak ezagutu</b></p>	<p>Ekimenean parte hartuko dutenen adina, interesak, haien inguru sozial – familiar – kulturalaren ezaugarriak, indarkeriaren aurrean duten onarpen maila...</p> <p>Genero estereotipoen inguruan, abusuzko harremanen inguruan. Matxismoaren inguruan... duten pertzepzioa ezagutzea.</p> <p>Kontuan izan, inguru sozial bakoitzak matxismoaren inguruko sinesmen maila desberdinak dituela, bai eta indarkeriarekiko tolerantzia maila desberdina ere.</p>
<p><b>b. Nerabeen kolektibora gehien egokitzen den ekimena hautatu</b></p>	<p><i>Ekimen orokorrak:</i> batez ere neska eta mutil gazteenei zuzenduriko ekimenak lirateke, baina ez soilik. Kasu hauetan, babeserako faktoreak landu ahalko lirateke: komunikazio ez bortitza, indarkeriarik gabeko gatazken ebazpena, ahalduntzen eta gaitze pertsonala, harreman parekideak...</p> <p><i>Ekimen zehatzak:</i> indarkeria matxistan azpimarra jarriko luketen ekimenak lirateke, eta arrisku faktoreak detektatu diren nerabe taldeei zuzenduak leudeke: indarkeria erabili edota onartzen denean, jarrera matxistak ematen direnean, neskekiko diskriminazioa dagoenean, genero rol tradizionalen baliozkotasunarekiko sinesmen maila altua ematen denean, abusuzko harremanak ematen direnean...</p>
<p><b>d. Ekimena gauzatuko den testuinguruaren eta hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuz hautatu gazteengana gerturatzeko estrategia</b></p>	<p>Nerabe eta gazteek indarkeria matxista eta genero harremanen inguruan duten interesaren eta aurretiko ezagutzaren arabera, gerturapen estrategia bat edo beste pentsatuko da.</p> <p>Batzuetan, gerta daiteke generoaren eta indarkeria matxistaren gaiekiko neke edo errefusa sentitzea. Kasu horietan, zeharkako prebentzio estrategiak jarriko dira martxan. Adibidez, esku-hartzearen jasotzaileak direnen interesguneak identifikatu daitezke, eta beste gai bat lantzen den bitartean, zeharka indarkeria matxistaren edo generoaren gaia landu.</p>

	<p>Esku-hartu nahi dugun taldera heldu ahal izateko neste estrategia bat talde horretako pertsona erreferentearekin aliantza eta konplizitate eta aliantzak sortzea izan daiteke.</p>
<p><b>e. Gazteek jada badituzten babes faktoreak identifikatu eta indartzea</b></p>	<p>Babes faktoreak identifikatu, gazteak indartu. Hau da, abusuzko harreman batean ez erortzeko edo indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko gaitasun, sinesmen eta jarrera positiboak sustatu: erabakitze gaitasuna eta ahalduntzea, kudeaketa emozionala, gatazken ebazpen ez indarkeriazkoa, komunikazio ez bortitzaren erabilpena...</p> <p>Komenigarria da, indarkeria matxistaren erabilpena egiten dutenen zein eraso matxista jasotzen dutenen profil estereotipatuak desagitea. Hau da, garrantzitsua da nerabe eta gazteei helaraztea indarkeria matxista eragin edo jasotzen duten pertsonak ez dutela profil zehatzik.</p>
<p><b>f. Harreman parekideak gizon eta emakumeei on egiten diguten harremanak direla nabarmentzea</b></p>	<p>Enfasia egin erreferente positiboetan, hau da, elkar-errespetuzkoak eta parekideak diren harremanetan.</p> <p>Era berean, esku-hartzea egiterako orduan talde mistoetan edo genero arabera banatuak egingo dugun pentsatu behar dugu; taldekatzeak berebiziko garrantzia du landu nahi den gaiaren inguruan sortuko den jarrera, erantzun eta sakontasunean. Batzuetan, interesgarri izan daiteke talde mistoetan lan egitea, enpatia, kontsentsua eta komunikazioa lantzeko, adibidez, eta besteetan, aldiz, beharrezkoa izango da genero arabera sozializatuak izan garen heinean lanketa zehatzak egitea (nesken ahalduntze prozesuak eta mutilen desboteretze prozesuak, kasu).</p>
<p><b>g. Gure ekimen prebentiboei oinarri sendoagoa emango dioten elkarlan guneak sortzeko konplizitateak topatu</b></p>	<p>Identifikatu komunitatean indarkeria matxistaren aurkako lanketak egiten ari diren talde edo pertsona giltzarriak eta koordinatu haiekin prebentzio lan hauek garatu ahal izateko; hau da, komunitatean saretu.</p> <p>Nerabe eta gazteen kolektibotik harago doazen bestelako pertsona taldeekin ekimenak egin. Adibidez: irakaslego zein guraso taldeei saio informatiboak eskaintzea...</p>
<p><b>h. Indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideak ezagutara eman.</b></p>	<p>Indarkeria matxistari aurre egiteko komunitatean edo lurraldean dauden baliabideak ezagutarazi: telefonoak, erreferentziako pertsona edo taldeak...</p> <p>Adin-nagusientzat, EAEko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Biktimentzako telefono zenbakia: 900840111.</p> <p>Adin-txikientzat, EAEko <i>Zeuk Esan</i> Haurtzarorako eta Nerabazarorako Laguntza Zerbitzuko telefono zenbakia: 11611.</p>

## 2. Ekimen prebentiboetarako gomendio metodologikoak

- Urrundu diskurtso teoriko-abstraktuetatik eta saiatu haien egunerokoarekin konektatu ditzaketen adibideak
- Hausnarketa aktiboan oinarritutako dinamikak erabili: epairik gabeko espazioak izatea, zeinetan nerabe eta gazteak lasai eta aske plazaratu ditzaketen haien iritzi eta sentipenak, eta zeinetan zalantzan jarri ditzaketen aurretik dakartzaten sinesmen eta jarrerak.
- Erabili baliabide berritzaileak, motibazioa eta interesa pizturik mantenduko dituenak.
- Materialak eta baliabideak hartzaileen eta testuinguruaren arabera egokitu: erabiltzen den lengoia, hizkuntza, irudiak, ikusentzunezkoak adibideak, besteak beste.
- Egiten diren ekimenak malguak izatea, leku eta une bakoitzera moldatu ahal izateko.
- Saiatu denboran jarraipena izango duten ekimenak prestatzen, eta saihestu esku-hartze puntualak ekiditen.
- Gaiaren arabera, erabaki talde misto edo ez mistoetan egingo den lanketa.
- Gaiak zehaztu ahal izateko, kontuan izan neska-mutilen interes eta lehentasunak.

## 3. Indarkeria matxistaren edukiak lantzeko enfokearen inguruko gomendioak

- Indarkeria matxista, izaera multidimentsionala duen fenomeno moduan aurkeztu.
- Emakume eta gizonen arteko botere banaketaren desorekan oinarria. Botere sinboliko, estruktural eta materiala.
- Balio maskulino tradizionalekin lotzen diren indarkeriazko ereduak eta balio femenino tradizionalarekin lotzen diren jarrera pasibo eta subordinatuan oinarritutako ereduak ikusgai egin.
- Indarkeria matxista eragiten duten pertsonen indarkeria erabiltzea zilegiztatzeko diskurtsoa desmontatu: ez dute burugaixotasunagatik egin, ez dute mozkor zeudelako egin... Jendarte egitura patriarkalak indarkeria matxista eta gizonen boterekeria ahalbidetzen duelako baizik.
- Indarkeria matxista eragiten duten zein indarkeria jasaten duten pertsonen profil estereotipatuetatik ihes egin.



## Detekzioa:

Atal honetan, profesionalek nerabe eta gazteen artean indarkeria matxista zantzu zein ebidentziak topatu ahal izateko egoerak deskribatu eta hauen aurrean esku-hartu ahal izateko jarraibideak azalduko dira.

Detekzioa, indarkeria matxista kasuak ikusarazi eta identifikatu ahal izateko tresna teoriko eta tekniko desberdinak martxan jartzean datza. Era berean, detekzioaren bitartez, indarkeria matxista kasuak garatu zein kronifikatu ez daitezkeen esku-hartzeak egitea ahalbidetzen du.

Indarkeria matxista kasuak anitzak izan daitezkeen arren, bikote harremanen baitan eman ohi dira horietako asko; halere, ez da begirada kasu horietara murriztu behar. Hau da, indarkeria matxista kasuak bestelako arloetan ere identifikatzeko gai izan beharko gara: arlo familiarrean, lagunartekoan, komunitarioan...

Era berean, indarkeria matxista kasuak bizi zein eragiten duten pertsonak, askotan ez dute abusu egoera hori jasaten edo eragiten aritzearen kontzientzia izaten, izan ere, indarkeria hau egunerokoa denez, eta apurkakoa izaten denez, normalizatua bizi izan ohi dute, batez ere, bikoteen kasuan. Gainera, gerta liteke profesionalek abusu edo indarkeria egoera hau detektatzeko arazoak izatea, jendartean dauden eredu kultural eta sozialek jarrera hauek toleratu zein justifikatzeko dituen mekanismoen ondorioz.

Bestalde, nerabe eta gazteen artean ematen den indarkeria matxista, batez ere, indarkeria psikologikoa izan ohi da. Honek ere zailtasunak sortzen ditu indarkeria matxista detektatzeko orduan. Eta horregatik, jakin beharra dago, detekzioa izango dela profesionalek protokoloa aktibatu ahal izateko izango duten lanik zailena. Horregatik, egoera desberdinen markoa kontuan hartuz, honako susmo adierazle eta jarraibideak proposatzen dira:

- a) egoera detektatzen den espazio edo testuinguruaren arabera
- b) egiten den eskari motaren arabera


d) indarkeria kasua detektatzen duen pertsonaren arabera

- a) **Egoera detektatzen den espazio edo testuingurua:** indarkeria matxista jasaten ari den nerabe edo gazte baten kasua, profesional moduan lanean ari garen edozein espaziotan eman daiteke.
- i. *Gaztelekuan edo bestelako gazteria zerbitzuetan:* profesional moduan, gazteekin duten gertutasunagatik eta haien inguruko informazioa biltzeko duten erraztasunagatik, indarkeria matxista jasaten ari den pertsonaren kasua detektatzeko funtsezko pertsonak dira. Nerabe eta gazteekin izan ohi duten binkulo pertsonal honek, egoera orokortasunean ikusteko gaitasuna ematen die, bai eta arreta pertsonalizatua eskaintzeko aukera ere.
  - ii. *Prebentziora bideratutako esku-hartze baten markoan:* indarkeria matxistaren inguruko lanketa egiteak hausnarketara eraman ohi duen arren, abusu egoera bat bizitzen ari den edo bizi izan duen pertsonarik badago, gerta daiteke nahigabea edo atsekabea erakusten duen jarrera edo jokabidea erakustea.
- b) **Egiten den eskari mota:** egoera gehienetan, indarkeria edo abusu kasu bat bizitzen ari den pertsonak ez du egoera onartzen edo hitzez adierazten. Horregatik da garrantzitsua desberdintzea:
- i. Eskari inplizitua: kasu hauetan, egoera jakin baten aurrean, pertsona bat indarkeria, abusu edo zaurgarritasun egoera bat bizitzen ari delaren susmoa izan dezakegu, baina pertsona honek ez du aitortzen edo ez du hitzez adierazten.
  - ii. Eskari esplizitua: kasu hauetan, pertsonak gauzak ongi ez doazela aitortzen du eta indarkeria, abusu edo zaurgarritasun egoera bat bizitzen ari delaren kontzientzia du. Kasu hauetan, indarkeria esplizitua da eta baieztatutzat ematen da.
- d) **Indarkeria kasua detektatzen duen pertsonaren arabera:** indarkeria matxistaren kasuak, indarkeria egoera hori jasaten ari den pertsonaren bitartez ezagutu ohi dira; halere, gerta daiteke indarkeria matxista jasaten ari den

pertsonaren ondoan dagoen bat (lagun, ahaide edo bestelako profesional) zuengana jotzea aholku edo laguntza eske.

- i. Indarkeria matxista jasaten ari den pertsona
- ii. Hirugarren pertsonak

Gauzak horrela, profesional moduan indarkeria matxista kasuak detektatu ahal izateko 3 agertoki izango ditugu kontuan:



- a) **Gaztelekua edo gazteria zerbitzuetako bestelako esparruak (eguneroko esku-hartze formal zein informalak barnebiltzen ditu):** gazteria zerbitzu desberdinetan lanean diharduten langileek, indarkeria matxista kasuak detektatzen lagunduko dien adierazleak izan behar dituzte. Jarraian biltzen diren adierazleak, indarkeria matxista detektatzen lagungarriak izan daitezke, baina kontuan izan ez direla iragarle finkoak. Hau da, ez dute kasu guztietan pertsona hori indarkeria matxista bizitzen ari dela ziurtatzen, baina kontuan izateak, nerabe eta gazteek hitzez kontaktatzen ez duten horretan ere arreta jartzen lagun dezake.

**1. Koadroa: Gazteleku edo gazteria zerbitzuetako bestelako esparruetan indarkeria matxista kasuak detektatzeko susmo adierazleak**

- Nerabe edo gaztea zerbitzura gerturatzen denean edozer urgentzia handiz eskatu eta ez duenean behar horren inongo arrazoirik ematen. Eskariak emantzipazioarekin zerikusia baldin badu (lotarako lekua, alokairua, lan bilaketa...), indarkeria matxista bizitzen egotearekin harreman handiagoa izan ohi du.
- Nerabe edo gaztea zerbitzura beldurturik, nekatua, urduri edo lotsaz etortzen denean.
- Nerabe edo gaztea ageriko arrazoi batengatik joaten denean zerbitzura, baina benetan beste zerbait eskatzen dagoenean.
- Nerabe edo gazteak ahoz esaten duenaren eta gorputzez adierazten duenaren artean kontraesana dagoenean.

- Nerabe edo gaztea, hirugarren batek lagundua datorrenean (lagun, ahaide, bikote...) eta azken hau denean beregatik galderak egin eta erantzuten dituenen.
- Nerabe edo gaztea hau, konprometitu den ekimen edo jarduerara etortzen ez denean.
- Nerabe edo gaztea profesionalen batekin duen hitzordura joaten ez denean.
- Nerabe edo gaztea zerbitzura substantzia bat edo gehiagoren eraginpean etortzen denean era errepikakorrean, edo substantzia baten abusuzko kontsumoa duenean.
- Nerabe edo gazteak memoria, arreta edo kontzentrazio arazoak dituenen.

## 2. Koadroa: Gazteleku edo gazteria zerbitzuetako bestelako esparruetan indarkeria matxistaren detekzioarako jarraibideak

### Eskari inplizitua:

- **Zerbitzura datorren nerabe edo gaztea entzun:** nerabe edo gaztearen eta zerbitzuko profesionalaren artean aurretiko harreman edo binkulua baldin badago, posible da gertatzea nerabe edo gazteak duen arazoaren inguruko pistak ematea. Aurretiko harremanik ez badago, garrantzitsua da profesionalak aldeko jarrera erakustea, konfiantza esparru bat sortze aldera.
- **Susmo adierazleetan jarri arreta:** gerta daiteke zerbitzura jotzen duen nerabe edo gaztearengan indarkeria edo abusu egoera bat bizitzen ari dela edo arrisku egoera batean dagoela susmatzera eramatea. Kasua edozein dela ere, jarri arreta susmo horietan.

### Eskari esplizitua:

- **Zerbitzura datorren nerabe edo gaztea entzun:** pertsonak konfiantzazko harremana badauka zerbitzuko pertsonekin, eta zerbitzua espazio seguru moduan ulertzen badu, gerta daiteke berak ematea indarkeria edo abusu egoera horren berri. Edozein kasutan, beharrezkoa da zerbitzuko langileen partetik epairik gabeko entzunaldia egitea.
- **Egoera unean bertan heldu:** posible bada, nerabe edo gazteak bizitzen ari dena adierazten duen unean bertan helduko diogu egoerari. Zerbitzuko langileak, egoerak nerabe edo gaztearengan sor dezaken urduritasunaren edo egoerak izan dezaken larritasunaren aurrean, lasaitasunez erantzutea beharrezkoa da.

Eskaria esplizitua izan bada, zein **nerabe edo gaztea indarkeria egoeraren bat bizitzen ari delaren susmoa izanez gero, beharrezkoa da:**

- 1) **Espazio bat lortu edo eskaintzea,** zeinetan bakarka eta lasaitasunez hitz egin daitekeen.
- 2) **Esplorazioa ahalbidetuko duen elkarrizketa sustatzea** zerbitzura etorri den nerabe edo gaztearekin. Ahal den neurrian, bizi duen indarkeria mota eta intentsitatearen inguruko informazioa topatzen saiatuko gara, bai eta pertsona hori bere gogoz ala kanpo presioagatik etorri den.
- 3) **Nerabe edo gaztearen egoeraren inguruko informazio nagusia biltzea:**

- a) Indarkeria bizi duen pertsona adin-txikikoa ala adin-nagusikoa den
- b) Egoera larri bat den ala ez
- c) Indarkeria kasuaren eremua zein den (bikote eremua, eremu familiarra, eremu laborala, sozio-komunitarioa...)
- d) Inguruan zaintza sarerik duen ala ez

#### 4) Arreta eta jarraipena egitea

- b) **Prebentziora bideratutako esku-hartzearen esparrua:** gazteria zerbitzu desberdinetan lanean diharduten langileek, indarkeria matxista kasuak detektatzen lagunduko dien adierazleak izan behar dituzte prebentziora bideratutako esku-hartzeetan ere. Arestian aipatu moduan, esan beharra dago adierazle hauek ez direla kausa-efektu harreman zuzena duten adierazleak, baina beharrezko marko orokor izan daitezke, begirada eta testuinguruak lagunduta, nerabea edo gaztea prebentziora bideratutako esku-hartze hauetan indarkeria matxista bizitzen ari delaren susmoa pizteko.

#### 3. Koadroa: **Prebentziora bideratutako esku-hartzeen esparruan indarkeria matxista kasuak detektatzeko susmo adierazleak**

- Nerabe edo gaztea aktibitatea egiten ari den espaziotik bat-batean joan egiten denean.
- Hitz egiten ari den gaiarekiko boikot eta errefus jarrerak jasotzen direnean parte-hartzen ari den nerabe edo gaztearen aldetik.
- Nerabe edo gaztea lantzen ari den indarkeria gutxietsi edo justifikatzen duenean.
- Nerabe edo gaztea urduri edo lotsatua adierazten denean.
- Nerabe edo gazteak esku-hartzean zehar bere jarrera edota egoera animikoa aldatzen duenean (pozik egotetik triste egotera igarotzen denean, jarrera parte-hartzailea izatetik isolatuta egotera igarotzen denean...).
- Parte hartzaileen begiradak parte hartzaile batetik zuzentzen dela sumatzen denean.

#### 4. Koadroa: **Prebentziora bideratutako esku-hartze esparruetan indarkeria matxistaren detekzioarako jarraibideak**

##### **Eskari inplizitua:**

- **Susmo adierazleetan jarri arreta:** gerta daiteke prebentzio esku-hartze honetara datorren nerabe edo gaztearengan indarkeria edo abusu egoera bat bizitzen ari dela edo arrisku egoera batean dagoela susmatzera

##### **Eskari esplizitua:**

- **Zerbitzura datorren nerabe edo gaztea entzun:** pertsonak konfiantzazko harremana badauka zerbitzuko pertsonekin, eta zerbitzua espazio seguru moduan ulertzen badu, gerta daiteke berak ematea indarkeria

<p>eramaten gaituen adierazleren bat topatzea. Kasua edozein dela ere, jarri arreta susmo horietan.</p> <p>Susmo adierazlerik detektatzen bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ez moztu egiten ari den ariketa/dinamika</b></li> <li>- <b>Saiatu nerabe edo gaztearekin lasaitasunez eta bakarka hitz egin ahal izateko espazioa:</b> saioaren ostean bakarka gauden momentu horretan, ea ongi sentitzen den, edo esku-hartzean landutako zerbaitek barruak mugitu dizkion, edo oroitzapenik ekarri dion.</li> <li>- <b>Kontaktatu, ahal izanez gero, nerabe edo gaztearen inguruko bestelako profesionalekin:</b> adibidez, gazte edo nerabearekin elkarbanatu ditzakegu ditugun susmoak, informazio gehiago bildu eta nerabe edo gaztearen jarraipena egin ahal iztaeko.</li> </ul>	<p>edo abusu egoera horren berri. Edozein kasutan, beharrezkoa da zerbitzuko langileen partetik epairik gabeko entzunaldia egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Egoera unean bertan heldu:</b> posible bada, nerabe edo gazteak bizitzen ari dena adierazten duen unean bertan helduko diogu egoerari. Zerbitzuko langileak, egoerak nerabe edo gaztearengan sor dezaken urduritasunaren edo egoerak izan dezaken larritasunaren aurrean, lasaitasunez erantzutea beharrezkoa da.</li> <li>- <b>Egoera larriei arreta jarri:</b> nerabe edo gaztea egoera larrian badago, egoera unean-unean kudeatzea beharrezkoa da.</li> </ul>
--	--

Eskaria esplizitua izan bada, zein **nerabe edo gaztea indarkeria egoeraren bat bizitzen ari delaren susmoa izanez gero, beharrezkoa da:**

- 1) **Espazio bat lortu edo eskaintzea,** zeinetan bakarka eta lasaitasunez hitz egin ahal den.
- 2) **Esplorazioa ahalbidetuko duen elkarrizketa sustatzea** zerbitzura etorri den nerabe edo gaztearekin. Ahal den neurrian, bizi duen indarkeria mota eta intentsitatearen inguruko informazioa topatzen saiatuko gara, bai eta pertsona hori bere gogoz ala kanpo presioagatik etorri den ere.
- 3) **Nerabe edo gaztearen egoeraren inguruko informazio nagusia biltzea:**
  - a) Indarkeria bizi duen pertsona adin-txikikoa edo adin-nagusikoa den
  - b) Egoera larri bat den edo ez
  - c) Indarkeria kasuaren eremua zein den (bikote eremua, eremu familiarra, eremu laborala, sozio-komunitarioa...)
  - d) Inguruan zaintza sarerik duen edo ez
- 4) **Arreta eta jarraipena egitea**

- d) **Hirugarren pertsonen bitartez helduriko eskaria:** gerta daiteke pertsona bat gazteria zerbitzuetako profesionalengana jotzea gertutik bizitzen ari den lagun, ahaide edo ezagunen baten indarkeriazko egoeraren inguruan laguntza edo aholkua eskatzeko. Kasu honetan, pertsona honek orientazioa eta aholkularitza beharrezkoa izango du. Atal honetan, susmo adierazleak ez dira beharrezkoak, zuzeneko eskari baten aurrean bai gaude.

#### 5. Koadroa: Hirugarren pertsonen bitartez indarkeria matxistaren detekzioarako jarraibideak

##### Eskari esplizitua:

- **Zerbitzura datorren nerabe edo gaztea entzun:** Edozein kasutan, beharrezkoa da profesionalen partetik epairik gabeko entzunaldia egitea. Beharrezkoa izango da, era berean, pertsona honen bitartez indarkeria matxista jasaten ari den nerabe edo gaztearen inguruko informazioa jasotzea: zein indarkeria mota den bizitzen ari dena, indarkeriaren intentsitate maila, indarkeria egoeraz ohartzen den nerabe edo gaztea, ekimenean bat martxan jartzea nahi duen profesionalarengana jo duen pertsonak...
- **Indarkeria matxista jasaten ari den nerabe edo gaztearen gertuko pertsona hau aholkatu eta indarkeria matxista kasuei aurre egiteko dauden zerbitzuen berri eman:** profesionalarengana jo duen pertsonarekin aholkularitza lanak egingo dira, indarkeria matxista jasaten ari den pertsonak laguntza eskatuko balu hirugarren pertsona honek emateko tresnak izan ditzan. Era berean, indarkeria matxistari aurre egiteko inguruan dauden zerbitzu espezializatuen berri emango zaio: telefonoak, elkarteak...
- **Utzi atea zabalik:** pertsona honekin sortu dugun harremana eroso eta gertukoa izan bada, egoera aldatzen denean profesionalari honen berri emateko jarrera izatea ahalbidetuko da, eta honela, indarkeria jasaten ari den pertsonaren jarraipena egin ahal izateko baliogarria izango da harreman hau.

## Arreta eta jarraipena:

Behin indarkeria matxista jasaten ari den egoera bat topatzen dugunean, edo indarkeria matxista jasateko arriskua duen egoera bat detektatzen dugunean, hainbat pauso jarraitu beharko dugu indarkeria jasaten ari den nerabe edo gazteari ahalik eta arreta egokiena eman eta, aldi berean, dituen aukera desberdinen aurrean erabakiak hartzeko erraztasuna izan dezan bai eta dauden baliabide desberdinak ezagutarazteko pertsona hau lagundu eta orientatu ahal izateko ere.

Arreta, pertsona bati zuzenduriko ekintza multzo bat da, zeinaren helburua eremu pertsonal, familiar eta sozialean indarkeria egoera bat zein haren ondorioak gainditzeko helburua duen. Zentzu honetan, pertsona honen segurtasuna ziurtatu behar da, eta uneoro, egoerari aterabidea topatzeko dagoen ahalik eta informazio argiena eman beharko zaio, bai eta dauden baliabide desberdinen ere, aipatu moduan, erabakiak hartzeko erraztasuna sortze aldera.

Zentzu honetan, jarraian topatzen diren pausoak, bi norabidetan doaz. Batetik, nerabe edo gazteari ahalik eta arreta egokiena emateko helburua dute; bestetik, indarkeria matxista jasaten ari den pertsona horren kasua dagokion baliabidera bideratu eta jarraipena egiteko eman beharreko pausoak zehazteko helburua.

### Nerabe edo gazteen indarkeria matxisten kasuen arreta egokirako pausoak

- 1. Egoera baloratu ahal izateko informazio orokorra hartu dela ziurtatu:** honakoa litzake bildu beharreko oinarrizko informazioa
  - i. Adin-txikikoa ala adin-nagusikoa da?
  - ii. Egoera larri baten aurrean gaude?
  - iii. Zein indarkeria matxista kasu da?
  - iv. Zein da familia inguruarekin duen harremana?
  - v. Badauka zaintza sarerik?
- 2. Jarri harremanetan profesional espezializatuekin.** Zentzu honetan, kasuaren larritasunaren arabera, bi norabide har ditzakegu, baina bi kasuetan, behin indarkeria kasua baieztatuta, gazterriko zerbitzuetako profesionalak Udaleko Berdintasun eta Gazteria arloekin jarriko dira harremanetan. Ezinezkoa suertatzen bada orduagatik, edo



bestelako egoera batek galarazten duelako, orduan, gazteria zerbitzuetako profesionalak egoera bideratzeko ardura hartuko du.

- i. **Egoera larri baten aurrean baldin bagaude:** kasu honetan, bi bide hartu ditzakegu kasuan kasuan. Batetik, nerabe edo gazteak indarkeria fisikoa edo sexuala jasan badu berriki, osasun zerbitzuetara joko dugu lehen arreta ematera. Bestetik, nerabe edo gaztearen bizitza arriskuan dagoela ondorioztatzen bada, beharrezkoa izango da udaltzainei edo Ertzaintzari deitzea jotzea.

Kontuan izan beharreko puntu garrantzitsua, nerabe edo gaztearen adina izango da: adin-nagusikoa bada, berak nahi duen pertsonak jarriko dira egoeraren jakinaren gainean; kasu honetan, kontuan izan beharko dugu 16 urte edo gehiago baditu, gazteak adin-nagusia den pertsona baten moduan erabakia hartu dezakeela.

Adin-txikikoa baldin bada, 16 urte baino gutxiago baditu, eta indarkeria kasua ez badator familia ingurutik, edozein pausu eman aurretik familiari deituko diogu (16 urte baino nagusiagoa bada, eraso jasan duen pertsonaren erabakipean jarriko da familiari kasuaren berri ematea). Argi izan behar dugu, eraso jasan duen pertsonaren duintasuna eta ongizatea jarri behar dela uneoro zentruan, eta berak ez badu pausorik eman nahi, eta familiak aldeko iritzia badu, ez dagoela inolako pausorik emateko derrigortasunik (salaketa, osasun zerbitzuetara jotzea...), familiaren aldetik gomendagarria den arren indarkeria jasan duten pertsonekin lan egiten duten profesionalekin harremanetan jarri eta egoeraren aurrean hartu daitezkeen pausoen berri izatea.

- ii. **Larritasunik ez duen egoera baten aurrean baldin bagaude:** lehenik, Udaleko Berdintasun Arloarekin jarriko gara harremanetan kasuaren berri emateko, eta ondoren, indarkeria matxista jasan duen gazteari lurraldean indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzendurik dauden zerbitzu desberdinen berri emango zaio: zerbitzu psikologikoak, talde feministak, ahalduntze eskolak...

Kontuan izan beharreko puntu garrantzitsua, nerabe edo gaztearen adina izango da: adin-nagusikoa bada, berak nahi duen pertsonak jarriko dira egoeraren jakinaren gainean; kasu honetan, kontuan izan beharko dugu 16 urte edo gehiago baditu, gazteak adin-nagusia den pertsona baten moduan erabakia hartu dezakeela.

Adin-txikikoa baldin bada, 16 urte baino gutxiago baditu, eta indarkeria kasua ez badator familia ingurutik, edozein pauso eman aurretik familiari deituko diogu (16 urte baino zaharragoa bada, eraso jasan duen pertsonaren erabakipean jarriko da familiari kasuaren berri ematea). Halere, pertsonaren bizitza arriskuan dagoelaren zantzu argiak baditugu, zuzenean udaltzain edo Ertzaintzari deituko diogu.

3. **Nerabe edo gazteari dauden baliabideen inguruko informazioa helarazi:** eraso jasan duen pertsonari, baliabide espezializatueta bideratzea nahi duen galdetuko zaio. Edozein kasutan, EAEko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Biktimentzako telefono zenbakia helaraziko zaio (900840111) adin-nagusikoa bada, eta EAEko *Zeuk Esan* Hautzarorako eta Nerabesarorako Laguntza Zerbitzuko telefono zenbakia helaraziko zaio (11611) adin-txikikoa bada.

Aholkularitza indarkeria kasu baten berri ematera etorri den hirugarren pertsona batentzat bada ere, dauden baliabideen eta aukeren inguruko informazioa emango zaio: Udaleko Berdintasun Arloa, herriko emakume taldeen berri, arreta telefonikorako telefono zenbakiak...

4. **Kasua eramango duen profesionalarekin koordinatu:** nerabe edo gazteak beste baliabide batera jotzeko erabakia hartzen badu, baliabide horretako profesionalarekin koordinatuko gara, jarraipena egin ahal izateko.
5. **Atea zabalik utzi:** eraso jasan duen nerabe edo gazteak prozesua hasi duen gazteria zerbitzuko profesionalarekin harremana mantentzea nahiko balu, atea zabalik utziko dugu.
6. **Erreferentziako profesionalarekin kasuaren jarraipena egin.**

Kontuan izan, kasua detektatu eta protokoloa aktibatzerako une guztietan, arreta ematen ari den profesionalaren jarrerak berebiziko garrantzia duela. Horregatik, garrantzitsua da arreta ematen ari garen uneetan gure jarrera ulerkor eta enpatikoa izatea, entzute aktiboa izatea eta lasai hitz egin dezakeelaren sentipena helaraztea.

Era berean, hainbat jarrera ekidin beharrekoak izango dira, hala nola, indarkeria egoera bizi izan duen pertsona epaitzea, kulpabilizatzea, egiten ari den kontakizunaren aurrean sorpresa aurpegiak jartzea edo hartu nahi ez dituen erabakiak hartzea zein eman nahi ez dituen pausoak ematera behartzera.

# 7

## Eranskinak

### Terminologia

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko ekainean “Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria” argitaratu zuen. Bertan, hainbat hitz gakoren definizioak ematen dira, eta haien baitan ulertuko ditugu protokoloan barnebiltzen diren kontzeptu nagusi hauen esanahiak.

#### **INDARKERIA MATXISTA**

Hau izango da kontzeptu nagusia, tradizioz esleitutako genero-eskemak –intersexualak, transgeneroa, transexualak, homosexualak, lesbikoak, eta ohiko sexu/genero eskema birsortzeari uko egiten dioten emakumeak eta gizonak– apurtzen dituzten gorputzei espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten zaizkien indarkeria mota guztiak barnean hartzen dituen, gorputz intsumiso horiek pairatzen dituzten zuzeneko indarkeriaren adierazpen askotarikoak haurtzaroan agertzen direla eta, hainbat molde hartuta, bizitza osoan mantentzen direla ulertuta.

#### **INDARKERIA SEXISTA**

Izen hori erabiliko dugu tradiziozko sexu/genero eskeman *emakume* gorputz sinbolizatu guztiek espazio guztietan pairatzen dituzten indarkeria molde guztiak adierazteko.

Indarkeria sexistaren barruan, indarkeria moldeak edota indarkeria egiten den leku sinbolikoak adierazten dituzten kontzeptuak, kontzeptu juridikoekin lotura dutenak, erabiliko ditugu.

### **Genero-indarkeria**

*Genero-indarkeria* terminoa erabiliko da indarkeria sexista, edozein moldetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean. Definizio horrek bat egiten du 2004ko abenduaren 29an BOEn argitaratu zen *Genero indarkeriaren aurka oso- osoko babes emateko neurriei buruzko Lege Organikoan* jasota dagoenarekin: *indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu- askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonezkoek beren ezkontide diren edo izan diren emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan.*

Amari tratatu txarra egiten dion aitarekin edo aita biologikoa izan gabe gizonezko bikotekidearekin hazi diren haur eta nerabeek pairatzen duten indarkeriak zer garrantzi duen aintzakotzat hartzeko, *genero-indarkeriaren biktimak* kontzeptua zabaldu egingo da, errealitate hori ere barnean har dezan. Kontzeptu horren barruan daude indarkeriari aurre egiten dion emakumearen ardurapean dauden adingabe guztiak.

### **Sexu-indarkeria**

Onartzen ez den sexu-izaerako jokaera guztiak sartzen dira. Egungo kontzeptu juridiko guztiak kontuan hartzeko, sexu-indarkeriak dituen hiru moldeak bereiziko dira:

Sexu-erasoak: indarkeria eta larderia tartean daudenean.

Sexu-abusuak: indarkeriarik eta larderiarik gabe egiten direnean. Horren barruan daude nahimenezko edo adimenezko ahalmena mugatua dutelako baliozko ezagutza ez duten emakumeei egindako abusuak ere barruan daude.

Sexu-jazarpena: ahozko jokaerak zein ahozkoak ez diren eta fisikoak diren jokaerak, sexu-izaerakoak eta nahi ez direnak, laneko, irakaskuntzako edo antzeko harremanen esparruan egiten direnak, emakumearen duintasunaren aurka jokatzeko edota

larderiazko ingurune aurkako, laidogarri, umiliagarri edo iraingarria sortzeko asmoz edo sortzearen ondorioz.

### **Familia barruko sexu-indarkeria**

Familia egitura pribilegiatua da sexu/genero/sexualitate sistema birsortzeko orduan, eta, hortaz, leku erreal eta sinbolikoa da, eta bertan nesken, nerabeen eta emakumeen aurkako indarkeria egiten da.

### **INDARKERIA MATXISTAREN BESTE MOLDE BATZUK**

Indarkeria matxistaren beste molde horiek berekin duten adierazpen zuzenaz gain, egiturazko intolerantzia sinbolikoa dago maitasun- eta sexualitate-adierazpen horien aurka, gizartean oso onartuta dagoena eta birsortu egiten dena, eta, hala, indarkeria horren hiru molde ezagunen aurkako egundoko gizarte-fobia sortu da:

**Transfobia:** gorputz intersex, transexual edo transgeneroen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Era estrukturalen hainbat indarkeria mota daude, patologizazio medikotik eraso fisikora eta bakartzera eraman dezakeen indarkeria zuzeneraino.

**Lesbofobia:** beste emakume batzuekin maitasun- eta sexu-harremanak dituzten emakumeen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Bikote horiengan sexua ikusezin bihurtzea lesbofobia molde ohikoenetako bat da, baina ez bakarria, arau heterosexuala haustearen aurkako indarkeria matxista mota hori indarkeria sexistaren adierazpenez osatzen baita.

**Homofobia:** beste gizon batzuekin maitasun- eta sexu-harremanak dituzten gizonen aurkako ezinikusia eta gaitzespena. Indarkeria matxista mota hau bereziki oldarkorra da gainerako gizonek zuzenean adierazteko orduan, eta horri gehitu behar zaio heteronormatibitateari aurre egiten dioten eta betiko maskulinitasunaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten gizonen aurkako arbuioaren zama sinbolikoa.